

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2011ko abenduaren 2a  
307. zenbakia. 23. urtea



## Sanikolas festetarako prest

Abenduaren 5etik 8ra izango dira 2011ko sanikolasak. Festa programa aldizkariaren erdi-erdian duzue zuen egitarau propioa prestatzeko.

**05**

**Orioko kontuak**  
Teknifikazio zentroa

**08**

**Kirola**  
Berdin-berdinak elkarte

**14**

**Erreportajea**  
Mutiozabal ontziola

**24**

**Ezpalak**  
Oroimenaren kutxa

# “Kalitatea, batik bat, barruko lanean ikusten da; gero kanpora iritsiko da”

**Xabier Atorrasagasti**

Altzerri jatetxeko sukaldaria



Euskadin 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Horietako bat da Altzerri jatetxea. Kalitatea hobetzeko planen bidez, bezeroei zerbitzurik onena ematen saiatzen dira.

Jatekoetan ez ezik, zerbitzuan ere eskaintzen du kalitatea Altzerri jatetxeak. Hori egiaztatzeko Kalitate Turistikoaren Q ikurra dauka orain dela lau urtetik; urtean behin egiten dieten kontroletan eta lau urtean behin egiten duten azterketa sakonagoan, zer aldatu eta hobetu behar duten esaten diete. Izan ere, besteak beste, establezimenduen kudeaketan ardura eta zorroztasuna hartzen ditu kontuan agiri horrek.

**Zein izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?**


Gehienbat, kalitatearen beharra. Horren falta sumatzen genuen eta, nire ustez, hori da bidea, kalitatea.

**Ze abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?**

Berez, bezero gehiago lortzeko egiten da, baina hori neurtzea oso zaila da. Berez, kalitatea, batik bat, barruko lanean ikusten da; gero kanpora iritsiko da, baina beharbada ez da hain nabarmena.

**Ezarri ondoren, nolako hobekuntzak izan dituzue?**

Gehienbat, garbitasunean eta kudeaketan sumatu ditugu hobekuntzak. Batez ere, osasunari dagozkionak: garbitasuna, hiru hilean behin egiten ditugun produktuen analisiak, urtean behin uraren analisiak... Lehen, garbitasunari erreparatu genion, baina orain zehaztuta dago egunean, hilean zer garbiketa egin



ALTXERRI ETA KARKARA

behar diren. Kudeaketan ere izan da hobekuntzarik. Eskaerak egiteko garaian, dena idatziz egiten behar da. Lehen, eskaera egin eta norberak bazekien ekarri ote zuten ala ez, baina horrek arazoak sortzen zituen zerbait falta zenean, denok ez geundelako jakinarenean gainean iritsi ote zen ala ez. Orain, ordea, dena idatziz dago, erregistratuta, eskaera egiten denetik jasotzen denera arte, eta hori guztia egiaztatu egin behar da.

**Bezeroaren satisfazioari dagokionez, zein hobekuntzak eragin du zuzenean?**

Bezeroekin harreman zuzena dago kexa eta iradokizunetan, eta jatetxean zerbait ahazten dutenean. Guztia erregistratzen dugu eta, azken kasu horretan, bezeroa bila datorrenean paper bat sinarazten diogu. Kexaren bat edo beste entzun izan dugu bezeroak jatekoren bat gustuko ez duenean-edo; baina, oro har, jendeak ez dauka ohiturarik zuzenean kexak aurkezteko. Bestalde, bezeroak berak nabaritu behar luke kalitatea.

**Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-a jartzera anima daitezen?**

Establezimendu bakoitza ezberdina den neurrian, bakoitzak ikusi behar du. Nik beharrezkoa zela ikusi nuen. Kalitatearen Q-aren sistemarekin ematen diren pausoak guk ere ematen genituen alde zurretik, baina honekin dena erregistratzen da. Esaterako, hozkailuen tenperatura begiratzen dugu nahi gabe, baina orain idatziz jaso behar dugu.

**Kalitate Turistikoaren Q-ak zure jatetxea lehiakorrago egin du?**

Bai, kanpoko jendeari begira batez ere. Jatetxeak ezagutzen ez dituztenean, batek Q-a badu eta besteak ez, errazago joango dira ziurtagiria duen tokira. Hemen go jendeak produktuetan kalitatea badaki zer den, baina guk zerbitzu bat eskaintzen dugu eta zerbitzuetan kalitatea neurtzea zailagoa da.

<p>✓ Jardinalde egokirako programak beharria enpresarioen "profesionalizazioa" eta jomuga-koizkientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.</p>	<p>✓ Kalitate Turistikoaren Q-a programari bezeroen itzaroposak botetzea eta azebetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.</p>	<p>✓ EFQM Bikaintasun ereduak erakundeek kalitatearekin bikaintasun maila altuak lortzea proposatzen duen programa. Eredu honetan parte hartzen dituzten 14 establezimendu daude Euskadin.</p>
<p>Euskaltasunerako Euskal Fundazioa Fundación Vasca para la Excelencia</p>	<p>BASQUE TOUR Turismoaren enpresen agentzia agente vasco de turismo</p>	<p>Herri-baitza</p> <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p>



## Norberaren festak ez du preziorik

**1**

Sanmartinzale amorratua naiz ni txiki-txikitatik, herriko festak baino gehiago maite ditut, bai horratik! Sanikolasek baina badute aurten sanmartinetatik eta ez asto karrera edo dema apustuagatik.

**2**

Festak *heritik herriarentzat, guk ta guretzat* eginak sanikolasak dira lehenak, bigarrenak sanmartinak. Festak ez dira beti izaten onenak, berdin, haundinak, tamalez beti *herria* ta *gu* ez dira izan berdinak!

**3**

Zer da egiten dakiguna ta zer bizitzen gaituena? Hori da festak antolatzeko pentsa behar genukeena. Beste gutziak prezio bat du ia eros leike dena, jaiak zureak sentitzea da preziorik ez duena!

# 307

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea,**  
Eusko Gudari 26  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarte

**Zuzendaria**  
Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**  
Irati Agirreazaldegia,  
**Erredakzio taldea**  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria,  
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
Lore Berasaluze  
eta Iker Gurrutxaga

**Festa-programaren diseinua**  
Iker Gurrutxaga

**Testuen zuzenketa**  
Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**  
Egoitz Eizagirre,  
Gurutze Iartza,  
Igor Iturain,  
Olatz Olariaga  
eta Nikolas Zendoia

**Laguntzaileak**  
Iñaki Iturain  
eta Xabier Sukia

**Diseinua**  
Danel Agirre Lertxundi

**Banatazaileak**  
Cristina Burlacu  
eta Iban Recio (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo [publizitatea@karkara.com](mailto:publizitatea@karkara.com) Prezio hauei BEZa gehituko zale**

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

## Kale garbiketa zerbitzua dela-eta

Hainbat herritar etorri zaizkit kale garbiketa zerbitzuari buruzko kezka azaltzera eta, gutun honen bidez, azalpen bat eman nahi diet oriotar guztiei.

Obra eta Zerbitzuetako batzordean kale garbiketaren gaia aztertzen ari gara eta gure asmoa da zerbitzu horretan aldaketak egitea ahalik eta azkarren. Gaur egun zerbitzu hori ematen duen enpresarekin hitzarmena sinatua du Udalak, momentu honetan luzatuta dagoena. Herria, azken urteotan, asko hazi da eta kale-metro gehiago dago garbitzeko; kale garbiketaren kontratua luzatzera koan, hori ez zen kontuan hartu eta horri datoz gaur egungo eskasiak. Nola nahi ere, kontratu horiek indarrean daude eta beren indarraldia bukatu arte ezin da sakoneko aldaketarik egin.

Behin Udalean gaia behar bezala aztertu eta dagozkion tramiteak egin ondoren, gure nahia da udaberri alderako zerbitzu hori indartu eta hobetzea. ■

**Amaia Dorronsoro.** Obra eta zerbitzuetako batzordeburua

## Teknifikazio zentroko lanen kudeaketa txarra

EAJ oso kezkatuta dago Bilduk Teknifikazio Zentroa dela-eta egindako kudeaketa txarragatik. Aurreko gobernuaren kudeaketa bikainari esker, hiru milioi eta erdiko finantzazioa sinatuta zegoen eta Kutxak emandako 525.000€ak lotuta, hitzarmena sinatzearen faltan. Dena batuz, 4 milioi eurotik gorako finantzazioa lortuta zegoen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzarekin beste 300.000€ko diru-laguntza hitzartu zen eta beste 1,7 milioi euro, gutxi gorabehera, CSDrekin. Azken bi kopuru horiek lortzeko, jarraipen egokia egitea besterik ez zen gelditzen eta erakundeek proiektua babes-teko zuten borondatea berrestea. Izan ere, bi erakundeek uste zuten Orioko zentroak urkiroletako erreferente in-

ternazionala izan behar zuela. Beraz, EAJren kudeaketari esker, Orioko Udalarria 6 milioi euroko diru-laguntza bideratzen zen proiektua gauzatzeko.

Orioko herriaren zoritxarrerako, Bilduk azaldu duen kudeaketarako ezgaitasunak Eusko Jaurlaritzak hitzartutako 300.000 euroko diru-laguntza galdu du. Horrez gain, CSDrekin ez denez gaia ondo gestionatu, ez baita Madrilera bisitarik egin azken 5 hilabeteotan, hitzartutako 1,7 milioi euro jaso beharrean, 300.000 euro eskas jasoko dira.

Instalazioa bereziki diseinatu zen mantentze gastu gutxi eta diru-sarrerak sortzeko; horregatik ziren inbertsioak handiak. Hala ere, gastuak bere osotasunean murriztea baino ez zaio okurritu Bilduri, murrizpenarekin instalazioa amaitu gabe utziz eta errentagarritasun gehien zuten zerbitzuak itxiz. Izan ere, Bilduk, Gipuzkoa osoan bezala, kudeaketarako ikuspegi mugatua darabil, gastua gutxituz baina ezer ez eginez.

Bildukoak oraindik ez dira jabetu kudeaketa ekonomiko ona ez dela lortzen ez gastatuz. Kudeaketa ona ondo gastatuz lortzen da, ondo inbertituz eta diru-laguntzak lortuz eta eskaintzen diren zerbitzuei esker autofinantzatzen diren instalakuntzak diseinatzen. EAJren kudeaketari esker, Udalak zentroaren %70a finantzatzea lortu zen eta gainerakoa lortzeko gestioak aurreratu zituen. Bilduk lortu duen gauza bakarra, momentuz, 1,7 milioi galtzea izan da.

Hori guztia Orioko Arraun Elkartearen kalterako da. Hauekin egoera goxatzeko diru-laguntza gehiago eskainiko diete, egoera negargarriari buelta emateko asmoarekin. Esan bezala, gaurkogia, biharko gosea. ■ **Orioko EAJ**

## Goazen euskaraz lan egitera!

Orioko Udalak ahalegin handia egin du, azken urteotan, euskararen erabilera areagotzeko udaletxe barruan eta, ondorioz, egoera asko aldatu da. Gaur egun,

herritarrek ziurtatuta daukate euskarazko zerbitzua Orioko Udaleko departamentu guztietan eta, horrez gain, gero eta gehiago dira euskaraz lanean ari diren udal langileak. Zorionak eman nahi dizkiet aldaketa hau urtez urte bultzatu duten gure aurreko politikariei eta, batez ere, udaleko langileei, bide hau egiteko erakutsi duten borondateagatik.

Guk oraintxe hartu dugu Orioko Udalaren lema eta, hasiberriaren umiltasunez, herritarrei adierazi nahi dizuegu jarraipen egokia eman nahi diogula hasitako lan horri eta, idatzi honen bidez, zuekin konpartitu nahi ditugu gure gogoetak, agintaldiaren hasiera honetan.

Garbi dago herritarren bultzadak ekarri gaituela gaur egungo egoera honetara: oriotarrok euskaraz bizi nahi dugu eta horrela erakusten dugu gure eguneroko jardunean. Udalari, herritarren ordezkari den aldetik, nahi horri erantzutea dagokio, zerbitzuak euskaraz emanez eta, batez ere, euskaraz lan eginez eta eredugarri jokatuz.


Izan ere, euskararen erabilerearen eredu garbia izateko dagokio Udalari eta, Orioren kasuan, euskarazko funtzionamendua bultzatzea esan nahi du horrek. Euskarak dituen arnasguneetako bat da Orio eta horrek, pozarekin batera, erantzukizun berezia dakarkigu: euskaraz eginez, guretzat ari gara batez ere; baina baita Euskal Herri osoarentzat ere.

Euskaraz lan egitea dugu, hortaz, erronka eta bide horretan sakondu nahi dugu datozen lau urte hauetan; betiere, herritarren hizkuntza eskubideak zainduz. Udal departamentu askotan hala ari dira dagoeneko, normaltasun osoz; baina Udalari puska falta zaio oraindik guztiz euskaraz funtzionatzera iristeko. Udaleko langileak gai dira beren lana gure hizkuntzan egiteko eta, agintaldi hasiberri honetan, zinegotzi guztiak ere euskaldunak gara. Aukera aparta daukagu, hortaz, alferrikako bikoiztasunak baztertu eta guztiz euskaraz funtzionatzeko.

Egoki, egingarri eta praktikoa da.

Egin dezagun! ■ **Orioko Udaleko Euskara batzordea**





Bildu eta Orain Arraunketa Elkartarekin ari dira adosten %90ean egina dagoen eraikin berriko beharrak eta zentroaren funtzionamendua . KARKARA

# Teknifikazio zentroak 1,4 milioi euroko gastua izango du Oriorentzat

Bilduk eta Orainek EAJri eskatu diote Kirol Kontseilu Gorenarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Sailarekin diru-laguntzak ziurtatuta zituela egiaztatzeko agiriak erakutsi ditzala

Bilduk eta Orainek osatutako gobernu taldeko zinegotziak jendaurrera ateraziren azaroaren 24an teknifikazio zentroaren egoeraren berri ematera eta bide batez, EAJri eskatzera, egiaztatzeko Kirol Kontseilu Gorenaren eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza diru-laguntzak ziurtatuta zituela eta hori, hitzez baino agiriak erakutsiz egin dezala. Horren harira, Bilduko eta Oraineko ordezkariak zera esan zuten: *Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak argi utzi zion maiatzera arte Orioko gobernuan egon den EAJ alderdiari diru-laguntzaren topea 700.000 eurokoa izango zela eta ez gehiago*. Kirol Kontseilu Gorenaren kasua ere antzekoa dela diote, hau da, aurreko gobernuak ez zuela ezer hitzartu haiekin. *Kirol Kontseilu Gorenaren ordezkariak Orion izan da udazkenean eta argi utzi du ez zutela konpromisorik hartu. Ezinezkoa dela diru kopuru bat hitzartuta egotea deialdia konpetentzia librekoa delako, esan zuten Beñat Solaberrieta*

alkateak. Gainera, Orioko Udalak, diru kopuru hori jasotzearen truke, 2013ko Munduko Kopako Sky-Surf txapelketa antolatu beharko du.

## Gainontzeko laguntzak

Bilduren eta Orainen esanetan *zentroa garestia eta arraun klubaren beharretatik nabarmen gorakoa* da. Guztira, 5.798.800 euroko gastuak izango ditu eta horiei aurre egiteko hainbat diru-laguntza jaso ditu Udalak: Eusko Jaurlaritzako Arrantza Sailetik 1.812.000 euro eta Kirol Zuzendaritzak 700.000 euro; Foru Aldunditik 1.000.000 euro; Kirol Kontseilu Gorenarekin 300.000 euro; eta Kutzatetik 525.000 euro.

Laguntzak laguntza, ordea, Orioko Udalak 1.412.763,82 euro jarri beharko dituela jakinarazi zuten Ikastolan egindako bilkuran. *Makina bat aldiz entzun genuen teknifikazio zentroa dohainik aterako zitzaioala herriari, baina egia bestelakoa dela esan zuten.*

## Ur lasterren pistarik ez

Diru kontuak ez ezik proiektuak berak ere izango du beste hutsune bat. Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Motondoko ur-lasterren pistari ezezkua eman dio eta hori EAJ alderdiak urtarrilean jakin bazuen ere, maiatzeko hauteskunde kanpian proiektua gauzatuko zela agindu zuen, diote Bilduk eta Orainek.

Pistari gabe piraguismo federazioek ez dute hasieran besteko interesik teknifikazio zentroaren proiektuan. Baina eraikina zutik dago eta atzera begira jarrita Bilduk eta Orainek ikusi dute, *hainbesteko dirutza balio duen obra kontratua Costas-en baimenaren eta diru-laguntza guztien ebazpenen aurretik sinatu zela.*

## Apirilerako prest

Teknifikazio zentroa eraikitzeke lanei erreparatuta, obren %90 inguru jadanik egina dagoela adierazi zuten alkateak eta, gauzak bide onetik badoaz, 2012ko apirilerako prest izango dela.

Bien bitartean, Udala Orioko arraun elkartarekin elkarlanean ari da, besteak beste, arraun elkartearen beharrak bermatzeko eta urteroko gastuak ahalik eta ondoen berdintzeko.



# Amaiurrek irabazi ditu azken bozak Orion eta EAJ izan da bigarren

Demokrazia ezarri zenetik lehen aldiz irabazi ditu bozketak ezkerrek Orion, kasu honetan Amaiur koalizioaren izenean. EAJk ere boto kopuru handia lortu du eta bigarren indarra da.



Hautesle kopuruaren portzentajeak gora egin du Orion. KARKARA

Azaroaren 20an egin ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Hainbeste urtetan aurkezteko aukerarik eduki ez zuen ezker abertzalea ere aurkeztu zen, Alternatiba, Aralar, EA eta beste alderdi txiki batzuekin batera Amaiur koalizioa osatuz.

Hauteslegoaren %66,47 – 2.666 pertsona – joan zen botoa ematera, 2008an baino %10 gehiago. Amaiur izan zen boto gehien eskuratu zituen taldea, 1.129; EAJ izan zen bigarren, 1.008 boto jasota – hiru urte lehenago 1.015 jaso zituen –. PSE-EEk beherakada nabarmena jodu oraingoan, 286 boto lortu ditu – 463 izan ziren 2008an –; PPK 134 boto jaso ditu, IUk 40, Equok 13, UPyDk 7, PACMAk 6, PUM+Jk 5 eta UCEk 2.

## Alderdien balorazioa

Orioko Bilduk hauteskundeetan gaineko balorazio positiboa egin du. *Boto kopuruak gora egin izanak harritu egin gaitu neurri batean, betidanik, gure bueltako zenbaitzuek Espainiako kongresuko hauteskundeetan parte hartzeko zalantzak izaten dituztelako. Horrez gain, maiatzeko hauteskundeetako emaitzen aldean, boto kopuruan gora egin izanak Udalean gaizki ez garelako ari ere erakusten du.*

EAJk bere aldetik zera azaldu du: *Oriotarrek hauteskundeoro ematen digute babesagatik esker ona adierazi nahi diegu botoa eman diguten guztiei. Emaitzekin baikor gaude etorkizunari begira eta gogo handiz, beti bezala, Orio eta oriotarren alde lan egiteko. Kontuan izanda Amaiur lau alderdik osatutako koalizioa dela, berriro ere mila bozkatik gora lortu ditugu eta hori guztiz positiboa da.*

## LABUR

### Eliza

#### Ateak zabaldu ditu Orioko elizak

Aurreko larunbatean, azaroaren 26an, lan handienak bukatu ostean, ireki ditu berriz ere ateak Orioko Bariko San Nikolas elizak. Aurreko asteburuan hiru meza eta bataioak izan ziren estrainatzeko, eta asteburu honetan, abenduaren 4an, ekitaldi ofiziala izango da Jose Inazio Munilla gozainak emango duen mezarekin eta orduan aldare berria sakratuko du.

### Musika

#### Beldarrain txapelkun

Herriko musikariek hiru txapelketako finalak zituzten azaroaren 27ko asteburuan. Goiztiarrena Giranice taldea zen, Bilbo Hiriko finala jokatu baitzuen azaroaren 26an. Hirugarren izan ziren oriotarrak pop-rock estiloan. Olatz Lizaso eta Intza Unanuek bigarren saria irabazi zuten Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan. Igande arratsaldean jokatu zuten finala Donostiako Antzoki Zaharrean. Ander Beldarrainek Zaldibarren zuen Euskal Herriko Trikitilari txapelketako finala: bigarren izan zen oriotarra Eider Iraolarekin.

### Kultura

#### Nabarralde saria Lertxundiri

Benito Lertxundi abeslari oriotarrari eman dio saria Nabarralde elkarteak 3. edizioan. Lehenik Jean Louis Davant euskaltzaina eta ikastolen mugimendua sari-tu zituzten. *Nafarroako eta Euskal Herriko nortasunaren defentsan eta sustapenean egindako lanetan nabarmen aritu izana* horregatik eman diote saria oriotarrari. Ziordian egingo da ekitaldia abenduaren 3an. Benitok, Olatz Zugastirekin batera, *Gartxot* pelikulan hartu du parte, abestia eginez eta pertsonaia bati –erregeari– ahotsa jarri dio.



Joxe Migel Zendoia, Tito Irazusta aurkezlea alboan duela, Kurasaalean hitzaldia eman aurretik. SAN SEBASTIAN GASTRONOMIKA

# Joxe Migel Zendoia San Sebastian Gastronomika jardunaldietan izan da

Iñaki semea lagun zuela, orduerdiko hitzaldia egin zuen Jose Migel Zendoia *Katxiña* erretegiko parrilleroak. Kurasaalean izan zen hitzaldia eta *Orio estiloa* zer den azaldu zuen batez ere.



Hilario Arbelaiz sukaldariarekin hizketan.. SAN SEBASTIAN GASTRONOMIKA

Gastronomiari buruzko nazioarteko bil-tzarra izan da Donostiako Kurasaal kongresu jauregian aurten ere. Azaroaren 20tik 23ra bitarteko jardunaldietan Brasil, Mexiko, Peru, Frantzia, Italia, Amerikako Estatu Batuak, Suedia, Erresuma Batua, Singapur, Espainia eta Euskal Herriko zenbait sukaldarik hartu zuten parte. Bakoitzak bere herrialdeko kolore eta zapore ezberdineko jakiak nola prestatzen dituzten erakutsi zuten. Horretarako, auditorioan zuzeneko sukaldaritzaren emanaldiak izan ziren.

Azaroaren 23an *Planeta Parrilla* izena hartu zuen Kurasaal jauregiak eta jardunaldian parrillan elikagaiak prestatzeko hainbat modu aztertu zituzten. Bertan nazioarteko parrilleroez gain, Euskal Herriko sukaldariek ere hartu zuten parte: Hilario Arbelaizek, Bittor Argingonizek eta Katxiña jatetxeko Joxe Migel Zendoiak hitzaldiak egin zituzten. Joxe Migelek bisigua *Orio Estilora* nola erretzen den azaldu zuen. Laguntzaile gisa bere seme Iñaki zuen eta bien artean, jatoriasun handiz, bisiguaren sekreturik preziatuenak kontatu zituzten oriotarren bisigua munduan boga-boga doala erakutsiz..

# Igeriketa elkarteak martxan jarri dute Berdin-Berdinak elkartekoek

Aniztasun funtzionala duten pertsonekin hasi dira lanean Berdin-Berdinak taldekoak, baina otsailetik aurrera igeriketa talde konbentzionala ere osatzeko asmotan dira Orion.



Igerilekuari bizitasun gehiago emango diote Berdin-Berdinak elkartekoek. KARKARA

Orain arte Lezora joaten ziren aniztasun funtzionala zuten herriko igerilariak. Beharra zegoela ikusita, taldea Orion osatzea lortu dute, eta bertan dabilta igerian orain. Otsailetik aurrera 10 urtetik gorako igerilariak ere atek irekiko dizkiete, orain arte Zarautzen jarduten zutenei, Orion entrenatu ahal izateko.

Amaia Iturzaeta izango da elkarteko idazkaria, taldeko igerilaria izateaz gain; eta Javier Quintanilla da presidenteorde eta igeriketa konbentzionaleko ardura-duna. Presidentea, Blanca Aranguren da. Momentuz, 11 igerilari dabilta, Orio, Aia, Usurbil eta Donostiakoak.

Baina proiektua kiroleratik haratago doa. Kirolaren aitzakian, aniztasun funtzionala duten herritarrek guztiz gizarteratzea eta besteek bezalakoxe bizitza eramatea du helburu Berdin-Berdinak elkarteak. Horretarako, Udaleko kirol batzordearekin eta ongizatearekin ere jarri dira lanean proiektua gauzatzeko.

Integrazioa alderantziz egin nahi izan dute elkartean eta lehenengoak dira hori egiten Gipuzkoan. *Ohikoena kirol konbentzionalarekin hasi eta kirol egokitutako saila sortzea izaten da, baina guk alderantziz egingo dugu. Kirol egokitua izango da protagonista eta hortik pasako gara kirol konbentzionalera. Ikastolari eta Karelari eskerrak eman beharrean gaude emandiguten laguntza guztiagatik, baita Mapfre fundazioari eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioari ere bere babesagatik. Orain egoitza behar dugu, behar bezala funtzionatu ahal izateko esan digu Amaia Iturzaetak. Aniztasun funtzionala dugunontzat leku oso aproposa da, niri, esate baterako, izugarri lagundu dit aurrera egiten.*

## LABUR

### Gaia

#### Neskei arraunean hasteko deia

Klaudio Etxeberria izango da 2011/2012 denboraldiko nesken entrenatzailea Orio Arraunketa Elkartean. Dagoeneko martxan jarri dira entrenamenduekin, baina gogoia dutenei eta zalantzan daudenei entrenamenduetara bertaratzeko gonbita egin nahi die Etxeberriak. *Hasteko zalantzan dagoenik bada, eta horiei konpromisorik gabe probatzeko aukera eman nahi diegu* adierazi du entrenatzaileak.

### Atletismoa

#### Nerea Amilibia garaile Mendaron

Azaroaren 26an jokatu zen Alkortara igoera Mendaron. Nerea Amilibia izan zen parte hartu zuen emakume bakarra, baina iaz berak jarritako errekorra 35 segundotan hobetu zuen, 25 minutu eta 45 segundo eginda. Astebete lehenago, azaroaren 19an, bigarren izan zen Karakaterako igoeran, azken metroetan Maite Maiorak aurre hartu eta gero. Bestetik, Donostiako maratoian zortzi oriotar eta bi aiarrek hartu zuten parte eta Aitor Rubio oriotarra 39. izan zen 2 ordu 39 minutu eta 42 segundoko denborarekin.

### Txirrindularitza

#### Aiako 2. ziklokros proba

Abenduaren 8an jokatu da Aiako 2. ziklokros saria. Kadete eta jubeniletan jokatuko da aurten ere lasterketa eta Aiako kaskoaren eta kanposantuaren inguruan izango da. Lasterketan parte-hartzen lehenak kadeteak izango dira. Goizeko 10:30ean ekingo diote probari eta atzetik, 11:30ean, jubenilen txanda izango da. Proba Aian egingo den arren, Aldapa txirrindulari taldeak eta Komite Oriok laguntza eskaini diote Aiako Udalarari. Horiez gain, Alustiza Autobusak, Diario Vascok eta Orbeak ere babesten dute proba.



# “Korrika egiteko zinta erosi nuenean, ez nuen uste lehian ibiliko nintzenik”

## Amaia Zuloaga Eizagirre

Korrikalaria

Pilotaria izandakoa da, baina denbora asko da pala hartu ez duela eskuan. Behobia-Donostia proba irabazitako *Chiquito de Aiaren* familiakoa da eta haren markatik gertu ibili da aurten. Amaiak 45 urte ditu, eta 6 inguru dira korrika hasi zela.

### IKER GURRUTXAGA

Bi marka garrantzitsu egin ditu aurten Amaia Zuloaga aiarrak. Amsterdamgo maratoian 3 ordu eta 3 minutuan egin zuten 42 kilometroak eta 4. izan zen emakume beteranoen artean. Azaroaren 13an Behobiatik Donostiara ibilbidea ordubete eta 22 minutuan egin zuen, eta bigarren izan zen bere kategorian.

#### Orain artean ezkutuan jardun zara, baina aspalditik al zabilta korrika?

Egia esanda, ez. Palan jokatzeko nuen lehen, baina hernia diskal bat atera eta utzi egin behar izan nuen. Orduan erosi nuen korrika egiteko zinta bat etxerako, eta bertan hasi nintzen lehen korrika saioak egiten. Sei urte dira zinta hura erosi nuela eta, egia esan, ez nuen sekula pentsatuko honela ibiliko nintzenik.

#### Eta etxetik kalerako saltoa nola eman zenuen?

Lankide batek galdetu zidan ea berarekin izena emango nuen Zarauzko kros mistoan, eta horrela hasi zen kontua. Ez nuen uste 8 kilometro kanpoan egiteko gai izango nintzenik, lotsa ere ematen zidan. Gustura ibili eta 31. izan ginen.

#### Hura izan zen mugarría, beraz.

Beno, hor hasi zitzaidan halako egonezina sortzen, eta entrenamendu luzeak egiten ere garai hartan hasi nintzen. Hamar kilometroko saioak eta egiten nituen. Horrela, behin gizon batek esan zidan Behobiatik Donostiara egiteko gaitasuna banuela, eta nik hasieran ez nion sinetsi. Hari kaso egin, eta Zumaian egiten den *Zakila biran* egin nuen lehenengo aldiz 20 kilometroko lasterketa.

#### Esperientzia ona izan al zen hura?

Zalantzarik gabe, lehenengo aldia zen eta ordubete eta 36 minutuan egin nuen proba. Dorsal gorria eman zidaten Behobiarako eta gisa horretan hartu nuen parte lehenengo aldiz.



A. ZULOAGA

#### Behobia-Donostia proban lortu duzu emaitzarik onena, ezta?

Duela 5 urte ordubete eta 35 minutuko denboran geratu nuen erlojua Behobiatik Donostiara iristean. Baina, lesioak eta beste hainbat gauza tarteko, lau urtez karrera hori egin gabe egon naiz.

Aurten egin dut berriz ere, eta ordubete eta 22 minutuan egin dut; emakume beteranoetan bigarren izan naiz.

#### Maratoian ere egin duzu proba.

Bai, New Yorkekoa egin nuen duela bi urte eta 3 ordu eta 24 minutuan bukatu nuen lasterketa. Aurten, Amsterdamen izan naiz beste bat egiten, eta 3 ordu eta 3 minutuan bukatu dut. Nik uste sei urte horietan egindako lanaren fruitua jaso dudala 2011n.

#### “5:30ean jaiki eta lanera sartu aurretik han jarduten naiz korrika. Asteburuetan saio luzeagoak egitera joaten naiz Donostiara”

“Inguruaz gozatzeko aukera ematen du. Amsterdamen izugarri disfrutatu nuen eta, gainera, eguraldia lagun izan genuen gozatzeko”

#### Nola egiten dituzu prestaketak?

Donostiako talde batean aritzen naiz korrika, Donostiarrak izena duena. Baina ez naiz egunero Donostiaraino joaten entrenatzera. Zarautzen egiten dut lan eta goizeko 5:30ean jaiki eta lanera sartu aurretik han jarduten naiz korrika. Asteburuetan saio luzeagoak egitera joaten naiz Donostiara, taldekoekin.

#### Entrenatzailearen bat ere izango duzu.

Bai, Ramon Vega dabil entrenatzaile lanak egiten nirekin eta, egia esan, asko zor diot berari. Korrika hutsa, besterik gabe, egitetik, prestaketa askoz ere zehatzagoa egitera pasa naiz berari esker, eta horrek ekarri ditu emaitzak. Gustatuko litzaidake luzerako izatea alboan, ea posible den.

#### Askok galdetuko dio bere buruari, eta hauek halako lasterketetan gozatzeko al dute?

Nik behintzat, bai. Nekea izugarria da, zalantzarik gabe, baina inguruaz gozatzeko aukera ere ematen du. Amsterdamen izugarri disfrutatu nuen nik eta, gainera, eguraldia lagun izan genuen gozatzeko.



KARKARA

## “Lagunek bultzatuta izan naiz Gipuzkoako Kantu Txapelketan”

**Eli Huegun Arruabarrena**

Zuzenbideko ikaslea

Deustun zuzenbideko 3. urteko ikasketekin buru-belarri dabil Eli, baina beste zerbaiti ematen dio astia: abesteari, alegia. Kantua dela eta, joan den igandean parte hartu zuen Gipuzkoako Kantu Txapelketan, eta horri heldu diogu elkarrizketa honetan.

### **PAT COWIE**

#### **Noiztik hasi zinen kantatzen?**

Esaten dute kantari jaio nintzela, gero solfeoa eta gitarra jotzen ikasi nuen eta koroan abestu. Familian inork ez nau honetara bultzatu, baina euskaldunen artean kantuak garrantzia badu, batez ere zerbait ospatzen denean.

Oso gustukoak dut kantatzea eta gitarra jotzea, nahiz eta nire gelan edo lagun artean bakarrik izan. Koadrilakoen artean gitarrista batzuk bagara eta ibilaldi bat egitera edo hondartzara joaten garene-

an gitarrak ere eramaten ditugu.

#### **Nolatan hasi zinen txapelketetan parte hartzen?**

Orain dela bi urteko txapelketa ikustera joan nintzen eta iruditu zitzaidan ni ere gauza nintzela parte hartzeko, aukera polita litzatekeela. Bakarleri moduan abesten, dut gitarrarekin lagunduta; batzuk *a capella* egiten dute eta beste batzuk lagun batek lagunduta instrumentu batekin. Kantu baten bertsioa egin dezakezu edo, bestela, zuk edo lagun batek sortutako kantu berri bat abestu.

#### **Nola joan zitzazun estreinako lehia?**

Iaz oso urduri nintzen; baina, nahiz eta saririk ez jaso, pozik nengoen finaleraino iritsi nintzelako. Xabier Leteren *Habanera* kantatu nuen, eta epaimahaiak esplikatu zidan nahiz eta abesti polita izan eta ahotsa erakusteko aukera ematen duen, gomendatu zidaten ahotsaren gaitasun zabalagoa erakusten duen kantua aukeratzea...

Aurten, Mikel Urdangarinen *Abendua* eta Katamaloren *Betazalak eraustean* kantatu nituen, gitarrarekin lagunduta, eta, finalean, Katamalorena.

#### **“2009ko txapelketa ikustera joan nintzen, eta iruditu zitzaidan ni ere gauza nintzela parte hartzeko, aukera polita litzatekeela”**

“Abeslari gehienek teknikako klaseak eta musika eskola dute atzean; nire atzean, ordea, ez. Beti izango dut horren falta!”

#### **Irabazteko gogoz aurkeztu zinen aurten?**

Gehienek teknikako klaseak eta musika eskola dute atzean; nire atzean, ordea, ez dago ezer! Beti edukiko dut horren falta. Baina ez naiz irabaztera joaten. Iaz, garbi nuen aurkeztuko nintzela, baina aurten galdetu dut: Zertarako? Baina laguntzat festa egiteko aitzakia da eta haiek bultzatuta joan naiz. Antzoki Zaharrean abestea gauza handia da. Saiatu naiz ondo kantatzen, egin behar nuena egiten, eta gustura gelditu naiz.

#### **Abesteko momentuan zer sentitzen da?**

Hainbeste argirekin ez duzu inor ikusten. Hobeto, akaso! Soinu frogetan argi handiak ez daude piztuta eta, leku dotorea ikusita, esaten duzu: *Jesus, ni hemen kantatzen!*

Jartzen naiz oso urduri atera behar dudana momentuan; baina, kantatzen has-tear nagoenean, esaten dut *Hemen nago eta ahal dudana ondoena egingo dut eta disfrutatuta.*

#### **Txapelketa ondoren zer egiten da?**

Txapelketan bertan jendea ezagutzen duzu, nola joan den komentatu, baloratu... Ondoren? Iaz, Realeko partida ikustera joan nintzen zuzenean! Aurten final aurrekoa Lezon izan zen eta koadrilako batzuekin afaria antolatuta genuen.

Oraingoan Alde Zaharrean buelta bat eman genuen eta etxera! Txapelketa ondoren parranda egitea zaila da, igandean izaten baita eta astelehenean klaseetara joan behar da.





Musika tresna bat ikasteko, 3 euro gehiago ordaindu behar dira hilean eta 6 euro birengatik. ELI LASA

## 2012rako ordenantza fiskalak onartu zituzten azken udalbatzarrean

EAJko zinegotzien aldeko botoekin eta Bildukoen aurkakoeekin onartu ziren aldaketetan nabarmenena ikastaroen tasak igotzea izan da, horiek eragiten duten galerari aurre egiteko igo baitituzte.

Azaroaren 16an egin zuen udalbatzarrak hilabeteko ohiko bilkura eta, besteak beste, 2012ko ordenantza fiskalak onartu zituzten EAJko zinegotzien aldeko 6 botoekin eta Bilduko 5en aurkakoeekin.

Aurrekoekin alderatuta, aldaketak izango dituzte ordenantzek zergeri dago kienez. Bai Hiri eta Landa izaerako ondasun higiezinaren gainekoak eta baita Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gainekoak %3 igoko dira. Eraikuntza, instalazio eta obrenak bere horretan utziko dira; baina, jarduera berriak bultzatzeko helburuarekin, horiei %25eko hobaria egitea onartu zuten.

### Tasetan igoerak

Tasetan aldaketak ere onartu ziren. Ur kontuetan ordainagiriak %5,6ko igoera izango du: urak %28koa eta saneamentuak %7koa. Zabor bilketa, ospitaletxe egoitza eta hileta zerbitzuei dagozkienek %3koa; eta udal probalekuarenak %7,5ekoa.

Pilotalekua erretserbatzeko tarifa berria onartu zuten: argia bakarrik, hileko 10 euro eta argia eta aldagelengatik 15.

Musika eskolako tasak %11; 3 euro hileko musika tresna bat ikasteko eta 6 euro bi instrumenturengatik. Igerilekuan, berriz, errolaturik ez dagoen jendearentzako %8,5 garestiago izango da, baina herritarren abonuak eta eguneko sarrerak lehen bezala utziko dira.

Ikastaroetan izango dira aldaketarik handienak, nahiz eta tarifak merkeak izan. Ikastaroetan urtero sortzen den galera murrizteko proposatu eta onartu ziren igoerak, urtero 10.000 euro inguruko laguntza jartzen baitu Udalak. Ingeles ikastaroek %21,5 egingo dute gora -hileko 50 euro helduek, 25 haurrek eta 70 errolatu gabeek-. Aerobik eta pilates ikastaroetan %28koa izango da igoera -hilean 25 eurotik 32ra-.

Ordenantza aldaketek alegaziorik jaso ezear, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dira indarrean.

## LABUR

### Uholdeak

**60.000 eurotik gorako kalteak**  
Azaroaren 5ean eta 6an izan ziren uholdeek eragindako kalteen balorazioa eginda, Aiako baserri eta herri bideetan 60.000 euro inguruko kalteak izan direla jakinarazi dute Udaletik, nahiz eta oraindik guztiak zenbatu gabe dauden. Kalte horiei Udalak egingo die aurre oraingoz. Kopuru horretan ez dituzte sartu Santio Erreka auzoan jabego partikularretan izandako kalteak, aseguruarekin moldatu baitira. Udalak eskerrak eman nahi dizkie Santio Erreka auzoan auzolanean jardun zirenei, baita kalteak izan dituzten herritarrei ere, egoera horren aurrean izan duten jarreragatik eta laguntzeko prestutasunagatik.

### Hauteskundeak

#### Amaiur nagusi 473 botorekin

Azaroaren 20ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeek emaitza aipagarriak ekarri dituzte Aiara. Alternatiba, Aralar, EA eta beste hainbat alderdik osatutako Amaiur koalizioak eskuratu ditu boto gehien: 473 (%50,75). Herrian alkatetza duen EAJ alderdiak, berriz, 386 boto (%41,41) eskuratu ditu, 2008ko hauteskundeetan baino 71 gutxiago. PPK gora egin du, 6 bototik 20ra, eta PSOEak, berriz, behera, 52tik 20ra. 2008ko hauteskundeetatik beste alderdietan ere izan da gorabehera txirikirik. IU 19 bototik 13ra pasatu da eta gainontzekoek gora egin dute: O izatetik EQUO 11ra, UPyD 4ra eta PUM+J 2ra eta Pacma 1etik 3ra. Boto emaile kopuruak ere gora egin du (%14,52) aurreko hauteskundeetatik. Izan ere, %61,40 izan da aurten parte hartzea eta aurrekoetan %46,88.

### Ludoteka

#### Haurren zerbitzua hamabostero

Xatur gaztelekua abian jarri ondoren, Aiako haurren eta nerabeen ekimenak bultzatzeko eta horietan parte har dezaten bultzatzeko haurren zerbitzua jarriko dute abian. Ludotekak abenduaren 2an irekiko ditu ateak eta ezagutza jolasak egingo dituzte; abenduaren 16an, berriz, kooperazio jolasak. Kultur Etxean egongo da ludoteka eta hamabostean behin, ostiraletan, egongo da zabalik. 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzat izango da, baina bi ordutegi zehaztu dituzte: 16:30etik 18:00etara 6 eta 8 urte bitartekoak, eta 9 eta 11 urte artekoak 18:00etik 19:30era.

## Ehiztariei

**E**hiza garaiak ere heldu diren honetan, aipatu beharko ditugu gure ehiztarien ibilerak. Ez daitezela haserretu, erdi txantxetan egia batzuk ere botako dizkiet- eta.

Galeper garaiak pasa dira. Bada jendekirik izan denik Soria aldean, Burgos aldean eta abar. Inori ez diot entzun *Alferrik izan gaituk; oso gutxi bota diagu!* Bai, ordea, *ehundaka ez dakit zenbat* bota ditzutela, *txorta ederrak egin dizkiagu* eta horrelakoak. Baina, badaezpada ere, inor ez nau gonbidatu galeper-jana egitera.

Horrela beharko du. Eta udazkeneko uso urdin eta oilagor bakarren zain gertatu beharko. Baina lehenengo, baserrietako etxeoandreeei ohartxo bat. Alegia,

oiloak larrera kontuz ateratzeko ehiza garaian. Eta etxe atariko txakurra ere, ahal bada, katetik aske edukitzeko. Badaezpada ere, kontxo!

Oraingo ehiztari gazte eta modernoak ari dira autoa preparatzen. Kartutxoentzako kaxa alde batean, bi edo hiru esko-potentzako gordelekua, txakurraren sehaska, otarteko eta termoarentzat txokoa, azpi-azpian estraperloen ezkutalekua eta abar. Mendizainak eta ertzainak ere noiznahi agertzen zaizkie orain ehiztariei, eta gauzak ordenean eta desordenan eduki behar bada! Badaezpada ere, kontxo! Paperak eta dokumentu guztiak ere, *a la orden*. Bestela konponduko haute, *matxo!*

Gaur ez dago bromarik, txo! Perretxi-koak biltzen bezala ehiztariei ere, ho-

nenbeste baino gehiago ez daukazu botatzerik. Lehengoan lagun Manexek esaten zidana: *joatea ditek danak a la mierda*. Baina badira alderantziz ikusten dutenak ere. Hor joango dira bezperatik uso txosnen zozketara zalapartaka. Autoaren irratia Donostiatik entzuteko moduan zunba-zunba, altu-altu jarrita. Eta txosna on xamarra tokatzen bazaie, tabernan afaldu eta parranda. Goizean txosnara joaterako, norbaitek usoa botata bere txosnan. Gero zera, gora begira egiten diren orazioak...

Ea, bada, norbaitek gonbidatzen nauen, uso janera. Nahiz eta Xalbadorrek kantatu zuena gertatuko zaien askotan:

*Ehiztariak mendian han egongo dira, etorriko ez diren uxoei begira*



## Txokoak eta jendea Andatza auzoaren eguna

Soziedatea irekitzearekin batera, Andatzakoei bururatu zitzaizen auzora bizitzera etorritako jendea bertakotzeko jai txiki bat eta bazkaria antolatzea horren inguruan. Hiru urte badira horretan hasi zirela eta saltsa polita sortu da. Goizean umeentzako jolasak eta eskulanak izan ziren eta, gero, ia 90 lagunentzako bazkaria giro ederrean.



**Azkue**  
 Tf: 943 13 04 38

*Lizaso*  
 dekorazioa  
 Eusko Gudari, 48  
 Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 45

**LORETXU JETEXEN**  
 Eusko Gudari, 18 Tf: 943 83 00 07

**LURDES**  
 ARKONDEGI  
 Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

He apazindegia  
**MARIJO**  
 Neska eta mutilentzat  
 Eusko Gudari, 8 - bajo  
 Tel. 943 13 47 29  
**ORIO**

**Allianz**  
**Marigre Zaldua**  
 aseguru agentea  
 Bai Ordo, 10 behe-oina  
 telefonoa: 943 13 47 80  
 fax: 943 83 57 52  
 e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

**Zaragueta**  
**Eskola** *ORIO*  
 telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ASADOR**  
**XIXARIO**  
 Eusko Gudariaren Kalea, 2  
 Tel. 943 83 919 - 0000

**MIRANDA**  
 tarima, ata, teilu, eskalera...  
 behar diren arak lanak  
 egiteko dituzte  
 Udazketa bidex. 1 >669 42 82 70> ZARAUTZ

**ODITZ**  
 tel. 943 83 00 89

**PERTSIANAK**  
 AKO MAZ  
 Abarrieto, PVC  
 Venezianak  
 Motorrak...  
 Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**SOLOZABAL**  
 autoeskola  
 Eusko Gudari, 30-1. ezk  
 telef: 943 83 08 12

**URAITZ**  
 Lurrinologia  
 Farmaziaz  
 Euzkadi, 3 Tf: 943 84 18 97

**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta errenintak  
 fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69  
 Baxoalde 4 - 20500 ZARAUTZ  
**URBIDE**  
 ITURGIINTZA\_BEROGINTZA  
 GASA\_BAINU ERAKUSKETA  
 (Pres. gaitasunak, laguntza, 10ak)

**XABIER URRETABIZKAIA**  
 - Instalazio elektrikoak  
 - TDT antenak  
 - Aterain automatikoak  
 60 urte zerbitzua ematen  
 943 83 17 74  
 Arantzaile, 31 20810 ORIO

**RAMIRO**  
 argazkiak  
 www.fotoramiro.com  
 fotoramiro@fotoramiro.com  
 610 69 76 68  
 943 83 10 48

**Hamabostero zuengana frexko-frexko...**

**ITZALA**  
 kartetas jokatzeko  
 aproposak  
 tel. 943 83 12 59

**iñaki** argazkiak  
**caperochipi**  
 ezkontzeko asmarik bai?  
 www.ikapero.com/ezkontzak  
 659378751  
 ikapero@ikapero.com

**2GURPIL**  
 Baxoalde 2 - 3 - 20810 Ordo (Gipuzkoa)  
 943 838 888 www.2gurpil.com bigurpil@frutemail.com




# Mutiozabal ontziolako azken egurren artetik





Garai batean ontziola asko zegoen Gipuzkoako kostaldean, horietako batzuk Orion. Pixkanaka, ordea, noizbait han egindako ontziek bezala hondoa jo dute itsasontziak egiteko modua aldatu ahala. Bada bat Orion, Mutiozabal, **Gipuzkoan zutik dagoen azken ontziola**, ezagutaraztea merezi duena.

**TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI  
ARGAZKIAK: I. AGIRREAZALDEGI  
ETA DONOSTIAKO UNTZI MUSEOA**

ntziola handietan egindako itsasontzi erraldoien botadura, gero eta irudi ezohikoagoa da. Are bitxiagoa zaigu, ordea, egurrezko itsasontzi handi zein txikiak uretaratzen ikustea. Izan ere, Gipuzkoan ontziola bat baino ez da gelditzen eta badira urteak han itsasontzirik eraikitzen ez dela. Orion dago ontziola hori errio aldamenean, Mutiozabal ontziola, hain zuzen ere.

Erdi Arotik eta Antzinako Erregimenetik, merkataritzarako eta arrantza jardueretarako osagarri zen neurrian, ontzigintza industriak garrantzia handia izan zuen euskal ekonomian. Thome Cano tratatu-idazleak XVII. mendean esana da euskaldunak itsasbide marinelik onenak eta ontzigile onak zirela. Nabarmena zen ontzigintzaren industria, Gipuzkoako kosta guztia ontziola txikiz betea baitzegoen. Gehienak pribatuak ziren eta arrantza-ontziak eta kostaldeko trafikorako ontziak egiten zituzten, eta aurrerago fragatak eta korbetak.

Aro Garaikidean, XIX. mendean, tradiziozko ontzigintzaren loratzea izan zen, eta mende amaieran burdinazko baporeak eraikitzen hasi ziren.

XX. mendean ontziolak zegokien tokia berreskuratu zuten teknologia modernoari eta enpresa-modu berriei lekua egin ondoren.

Gerra karlistaren ondoren etorri zen oparotasun garaia ontziola tradizionalentzat. Horietan egurrezko belaontziak eraikitzen zituzten, burdinazko baporeak indarra hartzen ari ziren bitartean.

Aduanak kostaldera aldatu eta merkataritza berreskuratuta, ontzi berriak behar ziren eta ontzioletako industria babesteko neurriak ere hartu zituzten.

Era berean, Amerikarekiko merkataritza harremanen garapenak ontzigintza indartzen lagundu zuen, kargamentua hemendik atzerrira eraman behar baitzen.



Mende askotan izan dute berebiziko garrantzia ontziolak kostaldean, eta Orion ere hainbat izan dira: Orioko erribera, Altxerri, Arratola, Mutiozabal, Ostolaza, Arin y Embil, Oria, Portuondo... Gaur egun, ordea, bakarra dago zutik kostako errepidearen eta errio ertzaren artean: Mutiozabal; eta han ere apenas hondakinak baino dauden.

### Antonio Mutiozabalen bidetik

1886an padura bat onbideratzeko eta usiatzeko espedientea bultzatu zuen Antonio Mutiozabalek; hasieran gune hori eraikuntzako materiala pilatzeko erabili bazen ere, gero ontziola jartzea erabaki zuen, zegokion lantegi mekanikoarekin. Lantegiak hasieratik galdara izan zuen, eta egunean bi metro kubiko ur erabiltzeko baimena zuen. 1910ean, bapore txikietako arrantzak gora egin zuela ikusita, Mutiozabalek lan esparrua zabaltea erabaki zuen. Eskabetxeriaren aldamenean dike txiki bat egokitu zuen arrantzako baporeak konpontzeko eta arranpla publikoaren gainontzeko zatia itsasontzi berriak eraikitzeko erabili zuen.

Urte batzuen buruan, berak sortutako instalazioak errentan eman zituen Mutiozabalek, eta ontziola Ostolaza familiaren eskuetara pasatu zen. Arrantzarako 50 tona arteko itsasontziak egiteko lizentzia zeukaten. 1954tik Ostolazak ontziolaren ardura izan zuen Francisco Carrera *Txanka* Agustin Gozategi *Karraballo*rekin batera, beti ere Ostolaza urertzeko arotz zela.

Urtebetera, ontziola maila bat handitu zuten arrantza ontzi handiagoak eraiki ahal izateko. Tradizioari hutsik egin gabe, trazatuetan eta ontzien formetan berrikuntzak ere sartu zituzten pixkanaka. Belaunaldi horri Agustin Gozategiren seme Esteban eta Jose Manuelek eta Jose Ramon Carrerak eman zioten segida. Hauek dire han eraikitako itsasontzi batzuk: Aita Lertxundi, San Antonio, San Juan, San Nikolas, Reina Maria... Itsasontzirik handiena 22 metroko Honda-



Mende askotan izan dute berebiziko garrantzia ontziolak kostaldean, eta Orion ere hainbat izan dira. Gaur egun, ordea, bakarra dago: Mutiozabal


Mutiozabalek ontziola Ostolazaren esku utzi zuen, eta gero Francisco Carrera *Txanka* eta Agustin Gozategi *Karraballo*rekin batera aritu zen, Ostolaza urertzeko arotz zela

Mutiozabal ontzian, XX. mendean, itsasontzigintza modu tradizionalari eutsi zioten. Egurra, haritzarena preziatuena, Nafarroatik ekartzen zuten. Basoan aukeratzen zituzten ontzien zati bakoitzerako egokienak

“Aitari balea-ontziaren argazkia ekarri zioten eta hartatik egin zuen txantiloia. Nik ez nuen aukerarik izan horrelakoak ikasteko, aitak begiratzuz ikasi behar zela esan arren”

“Aitak egindakoetatik hiru itsasontzi geratzen dira; bat Cadizen eta beste biak Orion. Orioko bat ontziolaren aurrean dago, eta usteltzen ari da: Sekulako pena ematen dit”

“Ontzian lan bat egin eta jendea kexu zen lana garestia zelako, eta teknikoak 2-3 ordu pasa aparatua konpontzen, 3 aldiz gehiago kobratu eta ez zioten ezertxo ere esaten”



rribiako Ama Guadalupe *Tuku-Tuku* izan zen, 1968an uretaratu zuten azken itsasontzia.

Aurten, udan, Bizkaiko Burdinaren itsasbidea egiten ari zen Brokoa itsasontzia izan zen Orion. Txalupa hura, Somorrostroko burdina banatzen zuten itsasontzien erreproduktzioa zen, Mutiozabal ontziolako plano batean oinarrituta, Itsas Begia elkarteak 1992n eraikiarazi zuena, hala gogoratu digu gaur egun ontziolaren arduradun Ramon Carrerak.

### Ontziolaren itxura

Itsasontziak bai, baina horiek egiteko ezinbestekoa zen, jakina, ontziola, eta garai bateko eraikinetik orain gelditzen denera izan da aldaketarik. Nabea zatitu gabea da, moilarako arranpla duena. Barruan egurrezko zertxak daude. Erriora begirako aurre aldiak, goiko partean, egurrezko listoiekin egindako itxitura du. Alboetan, berriz, harlangaitz hormak erdira arte, eta gainontzekoa egurrezkoa da. Teilatua uralitazkoa eta teila lauzkoa da, eta barruan arotz lanetarako makinak daude: lodia emateko makina, zinta zerra, arrabota eta zutikako zulagailua.

### Itsasontziak egiteko modua

Mutiozabal ontzian, XX. mendean, itsasontzigintza modu tradizionalari eutsi zioten. Egurra zen lehengai, haritzarena preziatuena, eta Nafarroatik ekartzen zuten. Basoan aukeratzen zituzten ontzien zati bakoitzerako zuhaitzik egokienak. Ontzian lurrean muntatzen zituzten gila, brankako korasta, popakoa eta azkenik alboak. Gero bagoak eta bragerak jarri eta iltzatu eta torlojuz lotzen zuten: lehenengo atzeko mataderak; eta gero, branka eta popa eta forrua; eta azkenik iltzeak bota. Bukatzeko arrabotaz leundu, istinkatu, lixatu, masillaz estali eta margotu egiten zuten.

Ramon Carrerak dio nola egiten ziren azaltzea ez dela erraza eta, gainera, ontzi bakoitzarena ezberdina dela; esaterako, batzuetan ontzia oholeztatzeko; berotu egin behar izaten zela egurra, okertzeko.





Horren harira, Donostiako Untzi Museorako egindako balea-ontzia izan du gogoan. *Kanadan aurkitutako itsasontzi baten argazkia ekarri zioten, eta hartatik egin zuen txantiloia. Nik ez nuen aukerarik izan horrelakoak ikasteko. Aita nik 22 urte nituela hil zen eta, begiratzuz ikasi behar zela esaten zuen arren, ez nintzen horretara ailegatu, denborarik ere ez nuen, dio Carrerak. Txantiloiak aipatuta, asko tailerretik lapurtu egin zizkietela esan digu. Aitak, hori ikusita, batzuk etxera eramatea erabaki zuen eta gero, familieren izenean Untzi Museoari dohaintzan ematea erabaki genuen.*

#### Eraikuntzatik mantenura

Balea-ontzia eskari berezia izan zen, baina, Carreraren ustez, ontzioletan itsasontzi txikiak egiten hasi ziren eta, pixkanaka, gero eta handiagoak. Hasieran, 18 metrokoak, gero 22, 25... Bakoitzak bere ezaugarriak zituen. Txantiloia berarekin egin zitekeen itsasontzi bat baino gehiago, baina gero aldaketak egiten zituzten. *Hemen, esaterako, baziren batzuk igualtsuak. Adibidez, Gure Nahia Galizian egin zuten eta han aurrea eroria egiten zioten, motelagoa, beraz, hemengo ezaugarriak jarri zizkieten. Astero, joaten ziren gure aita eta Arosteginekoa lanak nola zihoazen begiratzera. Nahiz eta handiagoa izan, hemengo itxura eta formarekin egin zuten.*

Mutiozabal ontzian 25 itsasontzi inguru egin zituzten, azkena 1973an, aisialdiko itsasontzi bat izan zen, *orain horrelakoak baino ez dira geratzen aitak egindakoetatik: bat Cadizen dago eta beste biak hemen, Orion. Bada bat, ontziolaren aurrean dagoena, eta erabat usteltzen ari da: sekulako pena ematen dit. Konpontzeko asmoa zuten, baina garestia zela eta... Egurrak hori dauka, mantentzeko lan handia behar du.*

Ramon 15 urterekin hasi zen aitarekin, baina berak ez du ezagutu han itsasontziak egiten. Mantentzeko lanetan aritu da, batez ere, ontzian. Gero, polisterrezko itsasontziak egiten zituzte-

## ONTZIOLAKO LANA DENEN BISTARA

**A**itarekin hasi zen Mutiozabalen lanean Ramon Carrera, eta gogoan du, orduan, Orion 27 bapore zeudela; orain, berriz, 7. *Hogeta bat urtean 20 joan dira, eta geratzen direnak denak txapazkoak dira. Itsasontzi handiak egiten zituzten enpresak txikiak egitera ere pasatu dira, eta bakarrik ezin haiei aurre egin.*

Ontziola beti egon da martxan. Kanpoan lanean aritu arren, aurrez bazituen bezeroak Carrerak, beraz, bere kontura jarraitzen zuen. *Baja eman nuela badira 3 urte, baina oraindik jarraitzen dut. Pena ematen dit Oriorako hainbeste itsasontzi egin ondoren dena uzteak aitaren eta familiako orotzapenak gordetzen dituela jakinda.*

Pena ematen dio, bai, Ramon Carrerari erabat uztea eta behera joatea, ia 30 urte han eman ondoren. Hori dela-eta, Mutiozabal ontziolak ondatze eta historia balio handia daukala kontuan hartuta, eta Gipuzkoan zutik gelditzen den bakarra izanik, orain dela bi urte berreskuratzeko eta jendeak ontziolen usadioaren berri izateko proiektua aurkeztu zien Foru Aldundiak eta Udalarik, Untzi Museoak Ramonekin batera, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. *Gipuzkoan zutik dagoen azken ontziola izanik, gure asmoa da babestea eta ahal dela jendeari erakustea, han nola lan egiten zuten jakin dezaten, dio Untzi Museoako Soco Romanok*

Ramon Carreraren esanetan, Orion ez dago ontzigintzari, arrantzari... *buruz kanpotarrei zein herritarrei erakusteko ezer, eta ontziola txikundua eta ikusteko moduan jarritz gero, zerbait ikasiko lukete, edo ontziola baten nondik norakoak jakin bai, gutxienez.*

Carreraren proposamen edo ideietako bat da, Agorregin errota martxan jarri eta burdina lantzen duten bezala, Mutiozabalen itsasontzi baten botadura irudikatzea edo ontzia egiteko prozesua azaltzea.

Bien bitartean, denbora egur egiten ari da eta ontziolako itsasontzigileen egurretik ateratako ezpala zuhaitzari zutik eusten ahalegindu arren, laguntzarikgabe lan zaila, benetan.



1. Ramon Carrera ontziola kanpoan. 2. Barruko ikuspegia. 3. Untzi Museoara dohaintzan emandako txantiloia. 4. Francisco Carrera Txanka lanean. 5. Mutiozabal ontziola moilatik.

nean, kubiartak egurrezkoak ziren, eta horiek prestatzen zituen. Baina ontzigintza lanak ez ahazteko, Ortzaiakako Bixentiko zenarekin ere egin zuen ontzi bat. *Nik berari bapore bat egiten lagundu nion, eta berak niri itsasontzia egiten; izan ere, bakarrik ezin nuen egurra okertu.* Gaur egun, itxita egon arren, deitzen diote noizean behin, itsasontziren batean zerbait lotu edo konpondu behar dela eta. Baina orain egurra inork ez duela nahi dio Carrerak, garestia ateratzen dela, mantentzeko lan handia duelako. Orain txapazkoak dira, baina neberak egiteko garaian-eta enpresa horiek sartzen dira eta ezin da horiekin lehiatu. *Nik azken 10 urte pasatu nituen beste enpresa batentzat lanean, polisterrezko itsasontziak egiten zituen, baina lehendabiziko modeloa egurrez egin behar zen, gero handik moldea atera.*

#### Ontzietan estimu gutxi

Lan neketsua bai, baina ez omen da askorik estimatu izan ontzioletako lana. *Eginda erraza dela ematen du, baina egurrari forma borobila emateko berotu egin behar da, tenperatura egokian, gehiegi edo gutxiegi berotuz gero, puskatzeko arriskua baitago. Lan bat egin eta jendea kexu zen garestia zelako, eta teknikoak 2-3 ordu pasa aparatua konpontzen, 3 aldiz gehiago kobratu, eta ez zioten ezertxo ere esaten. Ortzaiakako Bixentikok beti esaten zion kontu bat ekarri du gogora: Arretari jarri eta begiratu nola santu guztiak dauden, urrea hemen eta han, eta san Jose-arotza- bakarrik dago erremintak eskuan dituela; arotza beti pobre.*

Egurrezkoa du ontziolak fatxada eta egurra eta hori lantzeko tresnak barruan. Itsasontzi asko uretaratu zituzten han, baina lemarik gabe ontzia galduta dagoen bezala, han egindako lana ur azalera zeinek ekarri ez bada, han eraikitako itsasontzi asko bezala, Gipuzkoako azken ontziola ere hondora joango da.

# Kolosala izango da



regorio Eskudero Curtiseko espetxean, Galizian. 722 kilometro. Datorren martxoan hamar urte preso.

Itxaso Legorburu Fleuryko espetxean, Frantzian. 642 kilometro.

Datorren apirilean hiru urte preso.

Patxi Uranga Fontcalenteko espetxean, Alacanten. 936 kilometro.

Datorren ekainean hiru urte preso. Galizian, Frantzian eta Alacanten, tokitan daude hirurak.

Kilometro horiek denak bikoiztu egiten dira bisita bakoitzean. Ez ahaztu josten denak etorri ere egin behar duela!

Patxi bisitatu nuen joan den azaroan. Azken ostiralean. Goizeko bederatzieta zita. Orio-Alacant-Orio. Ostegun gaueko 21:30ean irteera, autobusa Amarako geltokitik. Gaua autobusean. Geltokiz geltoki. Goizeko 07:00ak aldera iritsi Alacanteko geltokira. Taxia Foncalenteko espetxera. Kanpoan tinbrea jo eta itxaroteko. Funtzionarioak zortziak arte ez du aterik irekitzen. Behin ba-



rruan, itxarongela tristea. Komunak zikinak. Oso zikinak. Funtzionarioen aurpegietan indiferentzia. Zakur amorratuak al dira hor barruan dauzkazuneak ala? Azkenean jo zituen bederatziak.

Biok bakarrik aurrez aurre, tartean kris-

tala. Inguruan bi funtzionario denbora zenbatzen. 40 minutuko bisita, legez. Gehixeago egon ginen. 10:00etan despedida. 10:30ean taxia Renfeko tren geltokira. 11:10ean trena, Alacant-Bartzelona. 16:33an beste trena Bartzelonatik Iruñera. 21:09ean Iruñera iritsi. Iruñetik Oriora kotxez, erdi presaka: ea iristen garen Beniton kontzertura! Azkenean bertan behera geratu da.

25 orduko etengabeko joan-etorria, 40 minutu egoteko. Patxi esan dit egunean lau ordu egiten dituela patioan. 1862 kilometroko bidea elkar ukitu ere egin gabe bueltatzeko. Patxi esan dit bere zeldak zortzi metro karratu dituela. Esan dit Olatz eta biak ezkondu egin direla kartzelan. Elkar ikusi eta ukitu ahal izateko. Esan dit gauetan Benitoren "Itsasoari begira" entzutea gustatzen zaiola. Esan dit...

Gure eta haien eskubidea delako, egin dezagun bidea. Bidezkoa delako. Kaleak bete, kartzelak hustutzeko. Urtarrilaren 7an, Orio ere kolosala izango da.

**Patxi bisitatu nuen azaroan (...) Biok bakarrik aurrez aurre, tartean kristala. Inguruan bi funtzionario, denbora zenbatzen. 40 minutuko bisita, legez.**

edantegia  
**ANTILLA**  
jaitoiak  
Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 28 00

Kinkladenda - Ume arropa  
**argine**  
www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89  
7.5eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK  
OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■  
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■  
FATXADEN ERABERRITZEAK ■  
IBOSAILUEN PROIEKTUAK ■  
GREMIO KOORDINAKUNTZA ■  
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■  
ITURRIBIDE 8, 5. BULEGOA, ZARAUTZ  
SORJA ABIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731 722

**uranga**  
autozerbitzua  
Eusko Gudari kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**Automóviles ZARAUTZ**  
OTROEN ZERBITZU ORGAINA  
ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 50

**ARKAITZ**  
Taberna  
Pintxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarleko mundialak  
ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAN  
943 83 05 37 / 943 83 27 47

**azkue**  
karrozeria  
Ubegun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com



# Badator

**B**ilabete, hilabete besterik ez da falta. Egun hauetan, guztien ahotan dabil; hala da, badator, lau asteren buruan Gabonetan izango gara.

Honezkero konturatuko zineten: etxeko postontziak jostailuen katalogoz beterik ditugu, telebistan lurrinen iragarki mordoa azaltzen da, dendak apaingarriz atonduak ditugu... Dagoeneko, egun horietan zer egin pentsatzen jarriak izango zarete: opariak, jan-edatekoak... Gabonak oso modu ezberdinean bizi ditugu, eta nahi edo ahal duguna egin ez igarotzen ditugu.

Badira Gabonak izugarri gustatzen zaizkienak: alde batetik, fededunak, Jesusen jaiotza ospatzen dutenak; bestetik, mahai inguru za-

leak, familia giroan bapo jan-edanean, abestuz, jolastuz, ordu txikiak arte egoten direnak; eta azkenik, erosketa zaleak, egunero gauzak erosten eta erosten pasatzen dutenak, opariak zein jateko-edatekoak.

Eta nola ez, badira Gabonak batere gustatzen ez zaizkienak: bidaiariak, oporrak aprobetxatuz munduko beste lurraldeetara joaten direnak adibidez; kirolariak, mendi garaietara eskiatzera zein maratoiak egitera joaten direnak.

Eta badira, Gabonak, besterik gabe, lasai eta familia nahiz lagun giroan pasatzen dituztenak.

Zu non kokatzen zara? —kokatu bazara behintzat—. Bat al datoz egiten duzuna eta pentsatzen duzuna? Norberak aukera dezala zer nolako Gabonak pasa nahi dituen.

Baina ez ditzagun ahaztu urte osoan landu ditugun baloreak egun hauetan. Hala nola, bertako kalitatezko produktuen kontsumoa, berrerabilpena, zaborraren kudeaketa —opariak, paper nahiz kaxatan bilduak egotea—... Etxean, Ikastolan, udaletxean... lantzen diren gaiak izaten dira, eta egun hauetan alde batera egiteko joera dago. Horregatik, hausnarketa bat egitea ezinbestekoa dela uste dut. Ez dago ikusi besterik Olentzero eta Errege bihararen munetan gure zabor ontzien itxura. Horren aurrean, badago zer eginik. Horretarako, —herriak aukera ezin hobea eskaintzen digu— hainbat gauza egin ditzakegu: bertako produktuak erosi, jostailuen berrerabilpena bultzatu, jostailu-trukea egin, bigarren eskuko azokara joan... Etxean berriz: oparien paperak berrerabili, oparia egunkariko paperez bildu, kontsumoa murriztu... Aprobetxa ditzagun herriak eskaintzen dizkigun aukerak. Joka dezagun koherentziaz urte osoan zehar, baita Gabonetan ere.

Gizarteak ataka baten aurrean jarri gaitu, baina erabakia gurea da, ez beste inorena, gurea bakarrik. Beraz izan gaitzen zentzudunak eta jokatu dezagun koherentziaz gure buruarekin urte osoan zehar, baita Gabonetan ere.

**Ez ditzagun ahaztu urte osoan landu ditugun baloreak egun hauetan. Hala nola, bertako kalitatezko produktuen kontsumoa, berrerabilpena, zaborraren kudeaketa —opariak, paper nahiz kaxatan bilduak egotea—... Etxean, Ikastolan, udaletxean... lantzen diren gaiak izaten dira, eta egun hauetan alde batera egiteko joera dago**

**Nire honetan**  
Jabier Zabaleta

## Hasierren irribarrea

**T**itular handien faltan ez gabilta aspaldi: krisia, ongizatearen gizartearen deskalabroa, ETArekin arma-uztea, azaroaren 20an izandako hauteskundeak, omen datozen garai erabakigarriak... eta, gure herri kokorrera etorrira, milioi askotako obrak, salaketa larriak...

Idatzi hau osatzeko, ordea, horiek denak utzi eta notizia xume bati jarri nahi izan diot arreta.

Herriko eta kanpoko lagun bultzatzen bultzatuz, igeriketa talde bat sortuko da Orion, normalean kirola egiteko aukera handirik ez duten gure semea bezalako gazteei bide hori ere irekitzen laguntzeko.

Jende askoren ahalegina behar izan da taldea abiatzeko eta esker ona adierazi nahi nieke denei, zutabe honek ematen didan aukera baliatuta.

Irribarre erraza du gure Hasierrek eta hori maite dut nik, beste ezeren gainetik. Berezkoa du eta natural ateratzen zaio; baina, jakina, landu ere egin behar da, eta elikatu.

Horretan laguntzen dute ekimen hauek, irribarreak elikatzen, eta horregatik ez zait bururatu gai hoberik nire honetarako. Hasierren irribarrea baino kontu inportanteagorik ba al da, ba, munduan?

**Dorronsoro Denda**  
196 letik zure endean  
AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN  
Tel 943 83 09 37



tailer mekanikoa  
**AUTO-LAN**  
C. B.  
urrutira joan gabe  
talde berria  
zure zerbitzura



Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34



Igo zaitetz haize berrietara!

**Galerna I**

943890416 - 677149934  
galerna1orio@hotmail.com



**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



gizarte  
**kutxa**

libe  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sareko Arantzale sateak ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com



**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**

TROROKAK - SAIBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa  
Tel. 943 630 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: [tmmanterola@euskalnet.net](mailto:tmmanterola@euskalnet.net)  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

AENOR  
R  
ISO 9002

Esferako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

*Gabon*  
TABERNA  
plater kateak eta apintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

**TANATORIO ZARAUTZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldiarako zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Koroiak, eskalak, tranitzioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 43  
e-mail: [harnospil@harnospil.net](mailto:harnospil@harnospil.net)



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
[orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net)  
[www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net)

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

**Goizeko**  
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 beheko · ORIO  
Autobus parada ondoan

**LUXARBE**  
igeltsaritza

Igeltsaritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisonik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

Orioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
Frontoi ondoan  
Tfnoa: 943 83 01 89

**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaiki, odolki, txakorra, txariza, krakakak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



# Gaia emanda Azaroaren 20ko hauteskundeak

Azaroaren 20an izan ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Zein da hauteskunde hauen inguruan egiten duzun hausnarketa?

## Madrilera... baina denok batera!

**A**zaroaren 20ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeak emaitzak aro politiko berri bat irudikatu dutela honezkerok denok ondorioztatu dugu. Euskal Herriak Espainiarekiko kolore desberdina erakutsi du, PPK Espainian inoizko garaipenik handiena jaso badu ere, Amaiur koalizioak, 7 diputaturekin, emaitza historikoa lortu baitu diputatuen kongresuan. Orotara, alderdi abertzaleek 13 eserleku izango dituzte gaurtik aurrera. Erronkak aldiz, hamaika, aurkariaren zelaian. Baita etxean bertan ere.

Udal hauteskundeetako emaitzak berretsi dira 6 hilabete geroago, testuingurua ezberdina bada ere. Bilduren maiatzeko arrakasta Euskal Herria bizitzen ari den garai berriaren adierazle esanguratsua izan bazen, oraingo emaitzek joera bera adierazten dute, ezker abertzalea za-

balagoa ordezkatzeko duen Amaiurrek lorturiko zifrei erreparatu gero. Ezkerreko bozaren aldeko joera egonkortu dela ondorioztatu daiteke, Bilduren emaitzak garaiko baldintzek –ilegalizazioen usteko amaiera, talde politiko ezberdinen arteko adiskidetzak, udal hauteskundeak izatea– ez zituztela puztu eta koiunturazko emaitzak soilik izan ez zirela frogatuz. Kasualitatea ez zela izan baieztatu da, azken finean. Duela hilabete pasatxo

ETAk behin betiko armak uzteko asmoak ere izan du eragina, bide demokratikoen aldeko hautua indartu eta jendearen partehartzea bultzatuz.

Halere, nago azaroaren 20ko argazkiak luzaroan ez lukeela berdin jarraitu behar, ez abertzaleen artean. Ikusiko da nola eusten dion PPK Marianismoaren aroaren hasierari, baita Amaiurren estreinaldia nolakoa izango den ere, baina batez ere, abertzaleen arteko elkarlana agertoki sinboliko horretan, Euskal Herriatik urrun, zein eratan gauzatuko den ikusiko da hemendik aurrera. Garrantzitsua izango da Madril abertzaleak herri bezala azaltzea, orain arte egindako politika gaindituz, zubi sendoagoak eraikiz, eskumenen eztabaidan soilik gelditu gabe, herriak hala eskatu die-lako. Presoekin has daitezke...

**Olatz Olariaga**  
Farmazialaria

## 20-N, hauteskundeak

**A**zaroak 20, Espainiako Gorteetarako Hauteskundeak. Sei hilabeteren buruan bigarren hauteskundeak eta honek berekin dakartzan gorabeherak. Euskaldunok errezeloz begiratu izan ditugun arren, oso garrantzizkoa da baita ere Madril egotea, azken legegintzaldian ikusi dugun bezala.

Lehenengoz, ETAren mehatxua hauteskundeetatik auzan dugu. Poztekoa eta euskal gizartearen zoriontzekoa.

Azaroaren 21ean hauteskunde biharamunen, emaitzak aztertuz, bi ondorio garbi ateratu ditut: euskal gizartearen abertzalea dela oso nabarmen –dudarik ez nuena– eta bigarrenik, PSOE-PP *fronteak*, porrot nabarmena jaso duela gurean, sozialisten gainbeheratik eta PPK ez duelako inolako igoerarik izan, Espainian jasandako *Mariano* tsunamia kontuan hartuta. Beraz, abertzaletasuna oso indartuta ateratu da.

Abertzaletasunera mugatuz, bi indar nagusiak lehian bizian, EAJ eta lau alderdi *ezkertiarez* osatutako Amaiur. EAJ da alderdi bozkatuena, nahiz eta maiatzeko hauteskundeak ikusita, Euskadin Aralar alderdiaren baturarekin, beste tsunami bat izango genuela bazirudien ere. Baina ez, EAJk tinko eutsi dio *ez-*

**Euskal gizartearen abertzalea da oso nabarmen**

*kertiaren* bultzadari, nabarmen gailenduz Euskadin eta garbi utziz, bere esparru politikoa gutxitzea oso zaila izango zaiola *ezkertiaren* UTEA-ri.

Gipuzkoan, Amaiur oso nabarmen gailendu zaigu, EAJri 46.000 botoko diferentzia ateraz. Baina, kontuz, hauteskunde munizipalaletako emaitzak begiratu eta alderdi bat gehiago direla kontuan hartuz, emaitzak ez dira hain onak *ezkertiaren* batasunarentzat. EAJk, gauzak txukun egiten jarraituz

gero, eta azken hauteskunde hauetako diskurtsoari eutsiz, hautesle gozabala du oraindik bereganatzeko

eta Gipuzkoako nagusitasuna *ezkertiarekin* lehiatzeko parez pare.

Aiari dagokionez, lehenbiziko aldiz, ez ditugu hauteskundeak irabazi, oso nabarmen gainera. Honek bi ondorio ekartzen dizkit burura: lehenik, gaur egun boto bakoitza lortu egin behar dela, hau da, izenak bakarrik ez duela balio, atez ateko lana egin behar dugu egunero; eta bigarrenik, *ezkertiaren* zenbakiak oso onak izan arren, hauteskunde munizipalaletan genituen ia 200 boto ez dira oraingoan hauteslekuetara etorri. Beraz, EAJ alderdiak bere nagusitasuna Aian mantentzeko kezkarik ez du izan behar aurrerantzean ere lana txukun eginez gero. Beraz, denok lanera.

**Igor Iturain**  
Alaiako alkatea

**Halere, nago azaroaren 20ko argazkiak luzaroan ez lukeela berdin jarraitu behar, ez abertzaleen artean**

# Itzaltzuko bardoaren istorio gordina marrazkitan

## Zinea Gartxot

**Animazioa**, 2011. Barton Films. Zuzendariak: Juanjo Elordi eta Asisko Urmeneta. Musika: Benito Lertxundi.

**B**enitoren kontzertua entzun asmoz ibili nintzen korrika eta presaka ostiral iluntzean. Bere emazteak, Olatzek, laguntzen dion talde txoari kantu txapelketarako animoak emateko pankarta egiten ari ginen eta berandutu... Baina kalean telefonoz ari nintzela, emakume batek esan zidan: *lasai ibili, kontzertua atzeratu egin da eta*.

Sekula Benito zuzenean entzun gabea nintzen eta, hara, oraindik ere hala segitzen dut.

Horren ondorioz, asteburuko agenda pixka bat gehiago estutu eta, Gartxot ikustera joan nintzen. Benito Lertxundi eta Olatz Zugastirekin berriz ere topo egite aldera.

Nafarroan hamabigarren mendean izan zen bardo bati buruzko istorioa da Gartxot filmean lantzen dena. Aurrez oriotarrantzat ezaguna diren izenak, bai Gartxotena eta bai bardoarena ere –Benito askok *Orioko bardo*a bezala baitaiatu izan baitu–.

Tokiko euskararen erabile-ra zoragarria da pelikulan. Ahotsak guztiz lotuta doaz istorioarekin. Hori bai, ikustera joan aurretik argi eduki behar da ez dela haurrentzako



Pelikulaz gain, Gartxot eta Mikeloten komikia ere kaleratu dute.

pelikula bat. Marrazki bizidunak izanagatik, kokortuta egon beharra dago istorioa ongi barneratu ahal izateko.

Garaiko elizak tokian egindako gehiegikeriak salatzen ditu eta gaur egun Euskal Herrian dugun gatazka islatzen. Batzuk herria bi sosen trukean saltzen diote kanpokoari, beste batzuek koldarrak dira eta ausartenek guztia ematen

dute herriaren alde, zigorrak zigor.

Benito Lertxundik errege-ari jartzen dio ahotsa, eta Olatz Zugastik narratzaileari. Biak ere tokiko euskararen. Horrez gain, pelikularen abestia berea da eta *Txori ttikia* eta *Belatsarena* abestiak ere entzun daitezke filmean.

IKER GURRUTXAGA

**Ikasleak idazle**  
Alazne Arruti

## Elkartasun tonbola

**N**egua iritsi da gugana, eta harekin batera, Gabonak, Errege eguna... gerturatzen ari dira. Urtero bezala, Orioko Herri Ikastolako DBH4.mailako ikasleok, gure herrian urtetik urtera, lekutxo bat egin duen tonbola prestatzen ari gara. Jada jakingo duzueenez, bertan lortutako diruaren erdia, ikasketa bidaira bideratzen dugu, eta beste erdia, aldiz, Ruan-dako ikastetxe batera, ikas materiala eros dezaten. Baina tonbolak beste esanahi



bat ere badu ikasleontzat. Amaiera bat adierazten du, hainbat urtetan ikasle hartu gaituen Ikastola agurtzea. Horrenbestez, ahal dugun guztia egingo dugu aurten ere, dena ongi irten dadin. Baina, horretarako, zuen parte-hartzea ezinbestekoa denez, abenduaren 24an, plazan kokatuko dugun postura gerturatzerako gonbidatzen zaituztegu. Bertan ikusiko dugulakoan...

**Zuen parte-hartzea ezinbestekoa denez, plazan kokatuko dugun postura gonbidatzen zaituztegu**





## » OSPAKIZUNA



## Ongi etorri Aritz

Aloña Beldarrain eta Bixente Kaperotxipiren semea, Aritz, urriaren 9an jaio zen. Bikotearen aurreneko umea oso jatuna omen da. Andatza Egunean ateratako argazkian amarekin dago Aritz, biberioia hartzen, aita bitartean auzo bazkarian zela. Familia berri asko sortzen ari da Andatza auzoan eta pixkanaka ume gehiago dabil elkarteko jolastokian eta eskola txikian. Zorionak, bikote!

## » INKESTA

## Zer iruditu zaizu udaletxea itxita egotea, langileek bi jai-zubi hartu dituztelako segidan??

146 erantzun jaso ditu galderak. %39 alde agertu da, %57 kontra, %2ri bost axola zaio kontua eta %1ak ez daki zer esan gai honen inguruan.



### HURRENGO GALDERA

Ondo iruditzen zaizu, krisi garai honetan, Gabonetako argiak jartzeko gastua egitea?

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emailtza 309. Karkaran argataratuko dugu.

## » ZORIONAK!

## Festa batzordeari

Aurtengo sanikolasak aspaldiko herrikoienak izango dira. Edo hala izan daitezten saiatu dira behintzat bai Orioko Udala, baita festa batzordean lanean aritu diren eragile eta herritarrak ere.

Sanikolasetan, egunero herritarrek antolatutako ekintzak izango dira festetako egitarauan, bai goizez baita arratsalde ere.

Antolatu dutena ikusita, herritarrok ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzea komeni da, aurrerantzean ere festa batzordeak bide beretik jarraitu dezan, lana gogotsu egiten.

Sanikolasak pasatzen direnean ere, gogoan izan behar da bestelako jai eta ekintza asko egiten direla herrian eta horiek prestatzeko lanetan guztien indarra ezinbestekoa izaten dela.

Horregatik, festak ahalik eta ondoen pasatzea opa dizuegu KARKARATIK. Guk ere egingo dugu festa, argazki kamera gainean dugula.

Faroeko bakailaoa daukagu

**ITSAS MENDI**

gustizialak

Elbeo Garbit. 5 Tel: 943.24.17.74 Orno

943 83 09 86

**KOASTA**

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

**Izarra Bideoa**

Eusko Gudari 44 / Aritzaga 15. Orno 943 83 38 81

**Etxetresna elektrikoien zure denda**

TIEN 21 Izarra Bideoa TIEN 21

REMOVE PLANA %20KO DESKONTUAK

**10 HILABETE INTERESIK GABE!**

**URDAIRA**

**Sagardotegia**

Abenduaren 17an barrikote afaria

**Egin erreserba!**

Urdaira baserria  
20170 Aginaga-Usurbil  
Tf: 943 372 691  
630 777 346



Horrela gelditu ziren hondartzako txaletak 1965eko uholdean. Kronika orduko egunkari batena da. KUTXA

# Galera handiak Orion

## Oroimenaren kutxa

**G**oizeko bostetik zazpiak arte herriak momentu latzak bizi izan ditu, dramatikokoak. Itsasoa, hase-re, behe aldeko kale nagusietaraino iristen zen. Herriko plaza urak hartuta zegoen, inguruko dendetan eta automobiletan urak metro erdiko maila hartu zuen. Bazirudien itsasoak irentsi egin nahi zuela herria.

Baina hondamendi handiena hondartzan ari zen gertatzen: olatuek apurtu egin zuten eskollera eta itsasoaren indarrak ubide berria zabaldu zuen, errioren pare, herri-raino iristen zen beste

erri bat. Bidean arbolak, farolak eta bankuak erazutzen zituen. Moila ere hondatu egin zuen. Itsasoak hondar pila izugarria metatu zuen barrara, itsasbeheran oinez igaro zitekeen alde batetik bestera. Hondartzako txaletak ere ia irentsi zituen. Jabeak kanpotarrak izan eta, zorionez, egun hartan ez zeuden etxean. Arratsaldean, han ari ziren, ahal zutena jasotzen, eta ateak eta leihoak indartzen, itsasoak goizean hasitako lana gauean segituko zuen beldurrez. Itsasoak hondar izugarri pila ekarri zien etxera. Bi hondeamakin lanean ari ziren, jo eta su, etxeen aurrean hondarrarekin babes leerro bat eraikitzen, gauean etor daitekeen erauntitik gordetzeko.

Herrian ere jendeak kezka handia dauka, eguraldiak okerrera eginez gero, egoera tragikoa izan litekeelako. Oraingoa ere larria da, berez. Diotenez, sei hilabete beharko dira hondarra kendu, barrara ireki eta baporeak sartzeko. Hala ere, gaitzerdi, barkuak kaian egon balira, okerrago izango zen, baporek jo egingo zuten elkarren kontra, bata bestearen gainean igoz. Pasaiako portuko lau buia Orioko arrantza-ontzientzat jartzea erabaki dute, egoera konpondu arte.

Lana gogor egin beharko da, herria bere onera ekartzeko. Galerak milioika pezetatan zenbatuko dira, oraindik goiz da baina, zehatz jakiteko.

INAKI ITURAIN

## JAIOTAKOAK

- Beñat Arrillaga Gozategi, Orion, azaroaren 22an.
- Eñaut Beaumont Balerdi, Orion, azaroaren 12an.
- Maitane Allo Campos, Orion, azaroaren 11n.
- Kamel Mohamed Ihadih, Orion, azaroaren 7an.
- Elene Lizaso Bastida, Orion, urriaren 28an.

## EZKONDUTAKOAK

- Maria Aranzazu Irureta Garate eta Juan Jose Lizaso Arruti, Orion, azaroaren 19an.

## HILDAKOAK

- Romana Agirre odrizola, Orion, azaroaren 27an, 89 urte.
- Inazio Orbegozo Aldalur, Aian, azaroaren 21ean, 66 urte.
- Esteban Zubiria Zumeta, Orion, azaroaren 12an, 85 urte.

.....  
 : Eskela edo .....  
 : urteurreneko .....  
 : gogoangarria .....  
 : KARKARAN jarri nahi .....  
 : baduzu, deitu gure .....  
 : telefonora: .....  
 : **943 83 15 27** .....



FISIOTERAPIA · Geriatziko Arduragailu eta Nabilak Winesozien  
 NUTRIZIONISTA · Gasteizko Arduragailu

**sinergia** Investigación fisioterápica

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
 943 13 10 37



# “Eskean datozen etorkinei ezin diet laguntzarik ukatu”

**Karmen Zubimendi**

Langilea

SOS Arrazakeria elkarteak *Bizilagunak* jaialdian etorkinak eta horien alde lan egin duten gipuzkoarrak saritu ditu; Carmen Zubimendiri eman diote horietako aitoren-sari bat kanpotik etorritakoei, bere borondatez, babesa eman dielako

## IRATIAGIRREAZALDEGI

Lokutorioan lan egiten zuenean, *giza-gaixoak etorri eta laguntza ezinbestekoa* zutela dio Karmenek; eta berak, lokutorioa utzi bazuen ere, oraindik babesa ematen jarraitzen du. Herrian kokatzen laguntzen die etorkinei, eta bere borondatea agerikoa izanik, etorkinek elkarri pasatzen diote haren telefona.

### Zertan laguntzen diezu etorkinei?

Lehenengo, logela aurkitzen laguntzen diet, beste etorkinekin batera bizitzeko etxe batean. Gero, lana non bilatu dezaket esaten diet edo zeinek lagundu diezaiekeen –Lasarteko moja batek, Zarauzko Caritasen... –. Agiriak nola bete behar dituzten jakiteko argibideak ere ematen dizkiet. Lehen, beren herritik beste norbait ekartzeko *carta de invita-*

*cion* ere egiten nien, baina gerora asko zaildu zuten kontua. Nik horiek guztiak haiekin ikasi ditut. Medikutara joan behar dutenean ere lagundu izan diet. Batek zailtasun asko izan zituen, gaitz sendaezin bat du, irakurtzen eta idazten ez daki... hizkuntza oztopoa da haientzat.

Lokutorioa utzi nuenean, pentsatu nuen han bukatuko zela kontua, baina ez. Eskean etortzen direnei ezin diet ezetz esan. Orain etorkinen bi ume ere zaintzen ditugu gurasoak lanean daudenean.

### Gaur egun hemengo jendeak laguntzen al die etorkinei beren borondatez?

Hemen, beharbada batzuk mugitu dira apaizaren bitartez, baina askorik ez. Gizarte laguntzailea, berriz, ez da ongi portatu etorkinekin. Arazo pila bat izan dute. Ni etorkin batekin harengana joan,

eta ez zidan bulegora sartzen utzi. Paperak egiteko orduan ere umiliatzen ditu. Etorkinei oztopoak jartzen dizkie. Paperekin laguntzeaz gain, saiatzen naiz euskara eta bestelako gaiak ikas ditza- ten, baina lana dute lehentasun.

### Jendeak jarrera arrazistak izan al ditu haiekiko?

Gizarte laguntzailearen aldetik bai; baina gainontzean, ez. Beltzek ez dute jarrera arrazistak izan direnik esango, latinoamerikarrek beharbada bai, baina haiek aldentzen dira. Pakistandarrak, algeriarrek, marokorrek... ere beren zirkuluan baino ez dira mugitzen, gainontzeko etorkinekin ere ez.

### “Herrian kokatzen laguntzen diet: logelak aurkitzen, lan aukerak non izan ditzaketen esaten, agiriak betetzen, medikutara joaten...”

“Askorentzat ama bezalakoa naiz. Senegaldarrek badute errespetuz egiten duten agur berezi bat eta niri hala egiten didate, oso legalak dira”

Beltzak oso legalak dira, latinoamerikarrek baino gehiago. Latinoamerikarrei kosta egiten zaie arauak betetzea; beltzek, aldiz, ikusi eta hemengora moldatzen dira. Nik beti esan izan diet jendea ez dela beren bila joango, haiek sartu behar dutela jende artean. Nik Getarian lan egiten dut, eta bisitan ere etortzen dira. Han ikusten dut etorkinak herritarrekin nahasian daudela, herri txikiagoa delako. Hemen arraroago begiratzen diete, eta haiek ere Bikamiotan, Goiko Kalen pilatzen dira.

### Aurrerantzean ere lagunduko diezu?

Bai, noski. Nik pentsatu izan dut nire semeak beste herrialde batera joango balira, nahi nukeela norbaitek laguntzea. Nahiko gogorra da norbere herrialdea utzita etortzea, ezer gabe, eta gainera ez-kutuan, paperik ez daukatelako, larri.

Askorentzat ama bezalakoa naiz. Senegaldarrek badute errespetuz egiten duten agur berezi bat, eta niri hala egiten didate. Beren alde egindakoa estimatzen dute latinamerikarrek baino gehiago. Azken horiek eskertzerako orduan opariak eta ematen dituzte, baina estimua beste era batekoa da.



KARKARA

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Lan eskaera**

- Gizonezko etorkina adinekoak zaintzeko eta bes-telako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentziak. Tf.: 680 234 095. (Abraham)
- Emakumea garbiketa lanak, plantxa orduka eta tabernan sukaldari laguntzaile lan egiteko prest. Tf.: 678 108 775. (Carina)
- Neska haurrak edo adinekoak zaindu, eta garbiketa lanak egiteko prest, barneko zein kanpoko bezala. Esperientzia eta erreferentziak. Tf.: 680 788 599 edo 943 831 128.
- Neska etorkina adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Etxean bertan biziko litzateke. Tf.: 627 621 629 (Claudia).

- Eskarmentudun neska euskalduna, urte guztian arratsalde, umeak zaintzeko prest. Uda osoan eta Gabonetako oporretan ere lan egingo nuke. Tf.: 679 85 23 41.
- Neska euskalduna etxek eta eskaratzak garbitzeko prest. Deitu zenbaki honetara: 666 03 67 80.
- Neska arduratsuak etxek garbitu eta adinekoak zainduko lituzke. Tf.: 600 745 686

**Saltzeko**

- 15 metro koadroko garaje itxia salgai Anibarko portuan. Tf.: 664 391 189.
- Aiako aurtengo intxaurrak salgai, tamaina onekoak: 5 kilo 20 eurotan. 943 13 21 31 (Pat).

- Andatza auzoan 138 metro koadroko etxebizitza erreformatu berria salgai. Lau lo gela eta bi bainugela. 237.400 euro. Tf.: 620 335 398.

**Lan eskaintza**

- Emakume euskalduna behar dugu Aian urtebeteko haurra orduka zaintzeko. Esperientziaduna hobe. Tf.: 615 730 167.

**Errentan**

- Garajea alokatzeko Aita Lertxundi, 21ean. Tf.: 609 91 73 99 (Igor).

**Erosteke**

- Orio erdialdean lokala erosiko nuke. Gehienez 30 metro koadrokoa. Lur azpikorik ez. Tf. 657 79 735

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
02	09:38 eta 22:21	03:10 eta 15:55	☾
03	10:46 eta 23:30	04:15 eta 17:00	☾
04	11:54 eta ____	05:24 eta 18:04	☾
05	00:34 eta 12:55	06:29 eta 19:00	☾
06	01:27 eta 13:46	07:24 eta 19:47	☾
07	02:12 eta 14:30	08:11 eta 20:29	☾
08	02:51 eta 15:09	08:52 eta 21:07	☾
09	03:27 eta 15:45	09:30 eta 21:43	☾
10	04:02 eta 16:20	10:07 eta 22:19	☾
11	04:36 eta 16:55	10:43 eta 22:54	☾
12	05:10 eta 17:30	11:19 eta 23:30	☾
13	05:45 eta 18:07	11:57 eta ____	☾
14	06:23 eta 18:47	00:08 eta 12:37	☾
15	07:03 eta 19:30	00:48 eta 13:21	☾
16	07:50 eta 20:21	01:33 eta 14:10	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

- ABENDUA
- 2an, Larrañaga
  - 3tik 5era, Lasa.
  - 6an, Barrenetxea.
  - 7tik 9ra, Lasa.
  - 10 eta 11n, Barrenetxea.
  - 12an, Zulaika.
  - 13an, Iriarte.
  - 14an, Larrañaga.
  - 15ean, Mutiozabal.
  - 16an, Barrenetxea. Gallo.
  - 17an eta 18an, Azaldegi.
  - 19an, Iriarte.
  - 20an, Larrañaga.
  - 21ean, Mutiozabal.
  - 22an, Lasa.
- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- Barrenetxea:** Gipuzkoa, 17. 943832398 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilarxko Enea. 943132983 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

**LANEGUNETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

**ASTEBURUETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Egin dezagun  
**bidea**  
eskubide guztiak euskal presoak euskal herrira

Konkateko lehen dena  
presoa kalera  
baita ere  
presoa kalera  
Ez da erabateko askatasuna  
3/4 lekuak dituen  
presoa kalera



## Egin dezagun bidea egitasmoa

Euskal preso politikoaren eskubideak aldarrikatzeko Egin dezagun bidea egitasmoa jarri dute abian hainbat euskal herritarrek. Horren harira, abenduaren 16an taldea aurkeztu eta ahalik jende gehienekin argazkia aterako dute 20:15ean zakilaeneko aldapan. Bestalde, abenduaren 19tik 23ra KM. O elkartearen argazkiak egongo dira ikusgai kultur etxean. Aste horretan bideo emanaldiak eta mahainguruak ere egingo dituzte.

### Jaialdia

■ Abenduaren 23an, Herribil jaialdia. 20:00etan, Karela kiroldegian.

### Bingoa

■ Abenduan ez da bingo saiorik izango asteazkenetan.

## Orio

### Hitzaldiak

■ Abenduaren 2an, Doluari buruzko hitzaldia Lydia Boticario. 19:00etan, Kultur Etxean.

### Sari-banaketa

■ Abenduaren 3an, Euskaraz Gazteko sari banaketa. 12:30ean, udaletxean.

### Jai errepresioaren aurka

■ Abenduaren 3an. Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak antolatuta triki-bertso poteoa, 12:00etan; bertso bazkaria Aitzol Barandiaran, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Izagirrerekin, 14:30ean, gaztetxean; Isuo Sasia, Eñaut eta Martin kantautoreak, arratsaldean, elizpean; Erantzun, Metralleta, eta Mutturbeltzen kontzertua, gauean, gaztetxean.

### Ipuin kontalaria

■ Abenduaren 13n, Pello Añor-ga. 18:00etan, liburutegian.

### Ikastaroak

■ Abenduaren 14an, hondakin organikoaren edukiontziaz buruzko ikastaroa. 17:00; 17:30; 18:00; 18:30; 19:00; eta 19:30ean, Kultur Etxean.  
■ Abenduaren 16an, *La almohada de los sueños*. Mandalarak antolatuta. 17:00etan, Kultur Etxean.

### Azoka

■ Abenduaren 17an, jostailuen azoka. 10:30-13:30 eta 15:30-18:00, Herriko Plazan.

### Erakusketa

■ Abenduaren 19tik 23ra, *Egin dezagun bidea egitasmoaren* baitan, KM. Oren argazkiak eta bideoak. 10:00-13:00 eta 16:30-20:00, Kultur Etxean.

### Musika

■ Abenduaren 20an, katilu-tibetarren kontzertua Olga Sanchez musikoterapeutarekin. Mandalara taldeak antolatuta, 19:00etan, Kultur Etxean.  
■ Abenduaren 21ean musika eskolako ikasleen kontzertuak, 17:30ean eta 20:00etan, elizan.

### Mahainguruak

■ Abenduaren 19an, Orioko presoaren senideen bizipenak mahainguruan. 19:30ean, Kultur Etxean.  
■ Abenduaren 22an, Orioko preso ohien mahaingurua. 19:30ean, Kultur Etxean.

### Bideo emanaldia

■ Abenduaren 20an, *Sagararen denbora* Josu Martinez eta Txaber Larreategiren film dokumentala. 19:30ean, Ikastolako aretoan.

## Aia

### Podologia

■ Abenduaren 17an. Ordua hartzeko deitu 943131114ra.

### Silo-bolak

■ Abenduaren 13an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu. 943816500. Bestela zerbitzuaren arduradunarekin hitz egin 660 049751 (Igor).

### Erromeriak

■ Abenduaren 4an, Astiazaran II., Izer eta Lutxurdio; abenduaren 8an, Astiazaran anaiak eta Leire; abenduaren 11n, Ostolaza eta Andonegi; eta abenduaren 18an, Epelde eta Lutxurdio, 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazuko plazan.



